

1.- ONDASUN HIGIEZINAK: «Ondasun higiezinak» epigrafean jasota daude lurrak, eraikinak, eraikuntzak, bideak, kaleak eta abar.

Ondasun bakoitzak bost digituko erreferentzia du. Aurreneko bi digituek ondasuna zein lurralde sektoretan dagoen adierazten dute, eta beste hirurek sektorearen barruan zer zenbaki duen (hurrenez hurreneko zenbakiak dira).

Izaera juridikoaren arabera, honela sailkatuta daude:

- .- Ondare ondasunak («A»)
- .- Jabari publikoko ondasunak («B»)

Era berean, ondasun motaren arabera sailkatuta daude.

- .- Eraikina («e»).
- .- Garajea («g»).
- .- Lokala («l»).
- .- Zorua («s»).
- .- Trastelekua («t»).
- .- Etxebizitza («v»).

2.- ESKUBIDE ERREALAK: Erabilera publikoko zorguneak, erabilera lagapenak eta abar dira. Eskubide erreal bakoitzak bost digituko eta bi letrako erreferentzia du: aurreneko bi digituek eskubidea zein lurralde sektoretan dagoen adierazten dute; ondoren, «DR» letrak ageri dira; eta azkenik, eskubideak sektorearen barruan zer zenbaki duen adierazten duten hiru digituak.

3.- IBILGAILUAK: zerrenda horretan, ibilgailuak daude jasota, departamentuen arabera multzokatuta.

4.- ITZULI BEHARREKO ONDASUNAK: «Itzuli beharreko ondasun eta eskubideak» epigrafean («C») jasota daude —behar besteko xehetasunez, duten izaeraren arabera eta behar denean inbentarioko beste epigrafe eta zenbaki batzuetara aipu bidez igorrita— egun jakin batera iritsitakoan edo baldintza jakin bat betetzen denean edo ez denean jabetza edo gozamina erakundean finkatu beharrekoak diren edo itzuli beharrekoak diren ondasun eta eskubide guztiak. Hartara, oroigarri etengabea izango da, Udalak une egokian dagozkion eskumenak gauza ditzan ondasun eta eskubide horien gainean. Inbentarioaren parte horretan zerrendatuta egongo dira, beste hainbat ondasunen artean, Udalak baldintzapean edo epe baterako lagatakoak, eta Udal nahiz probintzia ondasunen gainean emandako errentamenduak.